

XEDAPEN OROKORRAK

EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEA

133

EBAZPENA, 2024ko abenduaren 16koa, Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitateko idazkari nagusiarena, Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitateko Graduak ikasketetara sartu eta ikasketetan onartua izateko prozedura onartzeko dena 2025-2026 ikasturterako eta hurrengoetarako.

Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitateko Graduak Batzordeak, 2024ko abenduaren 5eko UPV/EHUko Graduak ikasketetara sartu eta ikasketetan onartua izateko prozedura onartzea erabaki zuen 2025-2026 ikasturterako eta hurrengoetarako.

UPV/EHUren Estatutuetako 187.1.d) artikulua idazkari nagusiari esleitzen dio UPV/EHUko erabaki guztien publikitatea bermatzeko eginkizuna. Bestalde, 39/2015 Legeko 131. artikulua xedatzen du arautegi eta xedapen administratiboak kasuan kasuko aldizkari ofizialean argitaratu beharko direla, indarrean jarri eta ondorio juridikoak izan ditzaten, bat etorrita Euskal Unibertsitate Sistemari buruzko otsailaren 25eko 3/2004 Legeak dioenarekin 10. artikuluan.

Horregatik guztiagatik, honako hau

XEDATU DUT:

Lehenengoa.— Bidaltzea UPV/EHUko Graduak ikasketetara sartu eta ikasketetan onartua izateko prozedura 2024-2025 ikasturterako eta hurrengoetarako, UPV/EHUko Graduak Batzarrak 2024ko abenduaren 5ean onartua, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratua izan dadin, eranskinean jasota dagoen moduan.

Bigarrena.— Ebazpen honek amaiera ematen dio administrazio bideari eta, kontra egiteko, aukerako berraztertze errekurtoa aurkeztu ahal izango zaio ebazpena eman zuen organoari hilabeteko epean; bestela, administrazioarekiko auzi errekurtoa jarri ahal izango da jurisdikzio ordena horretako epaitegietan bi hilabeteko epean, ebazpena argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera zenbatzen hasita epe biak. Edozelan ere, ezingo dira jarri bi errekurtoak aldi berean.

Leioa, 2024ko abenduaren 16a.

Idazkari nagusia,
AITOR ZURIMENDI ISLA.

ERANSKINA

UPV/EHUKO GRADUKO IKASKETARAKO SARBIDE ETA ONARPEN PROZEDURA

(UPV/EHUKO GRADUKO IKASKETEN GESTIORAKO ARAUTEGIAREN ERANSKINA)

2025/2026 IKASTURTEA ETA HURRENGOAK

Prozedura hau egiteko honako lege hauek hartu dira kontuan:

- 534/2024 Errege Dekretua, ekainaren 11koa, unibertsitateko gradu ofizialetara sartzeko baldintzak, sarrera probaren oinarritzko ezaugarriak eta onarpen prozeduren oinarritzko arauak ezartzen dituena.
- 3/2020 Lege Organikoa, abenduaren 29koa, maiatzaren 3ko 2/2006 Hezkuntza Lege Organikoa aldatzen duena.
- 243/2022 Errege Dekretua, apirilaren 5koa, Batxilergoaren antolaketa eta gutxieneko ikasketak ezartzekoa.
- PJC/39/2024 Agindua, urtarrilaren 24koa, zehazten dituena unibertsitatara sartzeko Batxilergoaren ebaluazioaren ezaugarriak, diseinua eta edukia, eta kalifikazioak berrikusteko prozeduraren epeak, 2023/2024 ikasturterako.
- Erabakia, 2024ko otsailaren 20koa, idazkariordearena, argitara ematekoa Hezkuntzako estatu idazkariaren eta Unibertsitateetako idazkari nagusiaren erabaki bateratua, 2024ko otsailaren 11koa, unibertsitatara sartzeko Batxilergoaren ebaluazioa moldatzekoa Espainiatik kanpo dauden ikastegi espainiarren, kanpoko hezkuntza programen, nazioarteko programen, atzerriko hezkuntza programetatik datozen ikasleen eta urrutiko ikasketen egoera eta premietara, 2023/2024 ikasturterako.
- Graduiko Ikasketen Gestiorako Arautegia, UPV/EHUko Gobernu Kontseiluak 2024ko apirilaren 24an onartua, II. kapitulua.
- 25 urtetik gorakoak unibertsitatean sartzeko probei buruzko UPV/EHUko Arautegia, azaroaren 14ko 1892/2008 EDra egokitua, eta 40 urte izanik lan arloan esperientzia egiaztatua dutenak eta 45 urtetik gorakoak unibertsitatean sartzeko Arautegia, Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitateko Akademi Antolakuntzako errektoreordearen 2009ko uztailaren 17ko Erabakiaren bidez argitaratua.

I. KAPITULUA

UPV/EHUKO GRADUETARA SARTZEKO BIDEAK

1.1.– Unibertsitatara sartu nahi duten urtean LOMLOE Batxilergo titulua lortu duten ikasleak.

Espainiako hezkuntza sistemako Batxilergo titulua edo baliokidea dutenek unibertsitatara sartzeko proba gainditu beharko dute graduiko ikasketa ofizialetara sartzeko.

1.1.1.– Unibertsitatara sartzeko proba.

Hezkuntzako agintariek unibertsitatearekin lankidetzan antolatuko dute unibertsitatara sartzeko proba (USP). Ebaluazioak bi fase izango ditu:

a) Sarbide fasea.

Fase hau gainditzea ezinbestekoa izango da unibertsitatara sartzeko.

Fase honetako azterketak Batxilergoko 2. mailan ikasitako enborreko irakasgaienak izango dira, modalitatearen arabera. Batxilergoan ikasleak modalitate bi edo gehiago egin baditu, probarako horietako bat aukeratu beharko du.

Proban irakasgai hauek sartuko dira:

- Euskara eta Literatura II.
- Gaztelania eta Literatura II.
- Espainiako Historia edo Filosofiaren Historia (aukeran).
- Atzerriko Lehen Hizkuntza II (alemana, frantsesa, ingelesa edo portugesa).
- Beste irakasgai bat gehiago, Batxilergoan ikasitako eta probarako aukeratutako modalitatearen arabera:

- * Arteak: Arte Plastikoak, Irudia eta Diseinua: Marrazketa Artistikoa II.
- * Arteak: Musika eta Arte Eszenikoak: Analisi Musikala II edo Arte Eszenikoak II.
- * Zientziak eta Teknologia: Matematika II edo Gizarte Zientziei Aplikatutako Matematika II.
- * Giza eta Gizarte Zientziak: Latina II edo Gizarte Zientziei Aplikatutako Matematika II.
- * Orokorra: Zientzia Orokorrak.

b) Onarpen fasea.

Fase hau borondatezkoa da eta gradu jakin baterako onarpen nota hobetzea dauka helburu. Unibertsitatera sartzeko proba egiten duten ikasleek onarpen nota hobetu gura badute, Batxilergoko bigarren mailako beste hiru irakasgaiko azterketak egin ahal izango dituzte, gehienez, deialdi berean. Irakasgai horiek komunak edo modalitatekoak izan daitezke, baina ezin daitezke izan sarrera proban azterketa egin duten gai berak. Gainera, atzerriko beste hizkuntza baten azterketa egin ahal izango dute, hau da, sarrera proban hautatu dutenaz bestelako batena.

- Alemana.
- Analisi Musikala II.
- Arte Eszenikoak II.
- Biologia.
- Zientzia Orokorrak.
- Marrazketa Artistikoa II.
- Marrazketa Teknikoa II.
- Diseinua.
- Enpresa eta Negozio Ereduen Diseinua.
- Fisika.
- Frantsesa.
- Artearen Oinarriak.
- Geografia.

- Geologia eta Ingurumen Zientziak.
- Grekoa II.
- Espainiako Historia.
- Filosofiaren Historia.
- Musikaren eta Dantzaren Historia.
- Artearen Historia.
- Ingelesa.
- Italiera.
- Latina II.
- Gaztelania eta Literatura II.
- Euskara eta Literatura II.
- Literatura Dramatikoa.
- Matematika II.
- Gizarte Zientziei Aplikatutako Matematika II.
- Kultura eta Arte Mugimenduak.
- Portugesa.
- Kimika.
- Adierazpen Grafiko-plastikoaren Teknikak.
- Teknologia eta Ingeniaritza II.

1.1.2.– USPko kalifikazioa.

Azterketa bakoitzaren kalifikazioa 0tik 10era bitartekoa izango da.

Sarbide faseko kalifikazioa enborreko bost gai orokorren batezbesteko aritmetikoa izango da; kalifikazioa adierazteko era: 0tik 10era bitartean, hiru dezimalekin, milarenera borobilduta. Gutxien dela lau puntu lortu behar dira.

Unibertsitaterako sarrera nota edo USNa honela kalkulatu da:

$$USN = 0,4 \times SFK + 0,6 \times BBN$$

SFK: sarbide faseko kalifikazioa; BBN: Batxilergoko batez besteko nota.

Gutxien dela bost puntu lortu beharko dira.

Gradu baterako onarpen nota edo GONa era honetara kalkulatu da:

$$GON = USN + K1 \times M1 + K2 \times M2$$

K1 eta K2: haztaperen koefizienteak; M1 eta M2: gaingidutako irakasgaien kalifikazioak, UPV/EHUK ezarritako onarpen irizpideei jarraituz.

1.1.3.– USPrako datak.

Ohiko deialdia: ekainaren lehenengo asteko astearte, asteazken eta osteguna.

Ezohiko deialdia: uztailaren lehenengo asteko astearte, asteazken eta osteguna.

1.1.4.– Probaren hizkuntza.

Euskal Herriko hizkuntza koofizialetako edozeinetan egin ahal izango da.

1.1.5.– Azterketak berrikusteko prozedura.

1.– Kalifikazioak behin argitaratuta, ikasleek edo beren guraso edo tutore legalek –ikasleak adin gabeak badira– azterketak berrikusteko eskaria egin ahal izango diote epaimahaiko buruari, iruditzen bazaie agian ez direla ondo aplikatu ebaluazio irizpide orokorrak eta zuzenketa eta kalifikazio irizpide espezifikoak. Eskariak aurkezteko epea hiru egun baliodunekoa izango da, kalifikazioak argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

2.– Berrikuspena beste espezialista batek egingo du, ez lehen zuzenketa egin zuen irakasle berak. Bigarren zuzentzaile horrek lehenengo eta behin ziurtatuko du galdera guztiak zuzendu direla eta azken nota kalkulatzeko ez dela errakuntza material edo aritmetikorik egin. Akatsik egin bada, kalifikazioa zuzenduko du. Nota berria ezin izango da lehen zuzenketan ateratakoa baino okerragoa izan.

Gero, berriz zuzenduko du azterketa osoa, ziurtatzeko ebaluazio irizpide orokorrak eta kalifikazio eta zuzenketa irizpide espezifikoak egoki aplikatu direla. Azken nota lehenengo zuzenketako kalifikazioaren (edo, hala badagokio, zuzendutako kalifikazioaren) eta bigarren zuzenketako notaren arteko batezbesteko aritmetikoa izango da. Lehenengo eta bigarren kalifikazioaren arteko aldea bi puntukoa edo handiagoa bada, beste zuzentzaile bik hirugarren zuzenketa bat egingo dute ofizioz. Azken kalifikazioa bi zuzentzaile horiek adosten dutena izango da.

Prozedura hau gehienez ere bost egun balioduneko epean bete beharko da, berrikuspena eskatzeko epea amaitu eta hurrengo egunetik aurrera.

3.– Azterketak berrikusteko prozesua behin bukatuta, Antolaketa Batzordeak behin betiko kalifikazioak ezarriko ditu erabaki baten bidez eta jakinarazpena bidaliko die erreklamatzaleei. Erabaki horrek administrazio bidea amaituko du.

4.– Erabaki horren kontra aukerako berraztertze errekurtsua jarri ahal izango zaio hura eman duen organoari, edo, bestela, administrazioarekiko auzi errekurtsua zuzenean.

5.– Berrikuspen prozesua guztiz amaitu ondoren, ikasleak eskubidea izango du berrikusitako azterketak ikusteko hamar eguneko epean, berrikuspenari buruzko erabakiaren jakinarazpena egiten zaion egunaren biharamunetik aurrera.

1.2.– Aurreko ikasturteetako ikasleak.

1.2.1.– USPa gaindituta izan beharko dute, edo aurreko deialdietan indarrean egondako proba baliokidea.

1.2.2.– USNa aurreko deialdietan lortu zutena izango da.

1.2.3.– Onarpen nota hobetzeko, aukera izango dute aztergai den edozein gaitara aurkezteko. USNa hobetzeko, sarbide faseko azterketa guztiak egin beharko dituzte, beren garaiko Batxilergoko modalitate berean.

1.3.– Goi mailako heziketa zikloetako ikasleak.

1.3.1.– Goi Mailako Heziketa Zikloko titulua daukatenak unibertsitatara sar daitezke sarrera probarik egin gabe. USNa zikloko batez besteko nota izango da.

1.3.2.– Onarpen nota hobetzeko, aukera izango dute aztergai diren gaietako edozeinetara aurkezteko. Gehienez hirutara eta atzerriko hizkuntza batera aurkeztu ahal izango dira. GONa kalkulatzeko era Batxilergoko ikasleentzako bera izango da (ikus I. kapituluko 2. atala).

1.3.3.– Zikloaren lanbide arloak lehentasuna emango du berari lotutako jakintza adarreko graduetara sartzeko.

1.4.– EBko herrialdeetan edo elkarrekikotasun hitzarmena sinatua daukaten herrialdeetan egindako ikasketak dauzkatenak.

1.4.1.– Halako ikasketak dituztenek unibertsitatara sartzeko aukera dute, baldin eta kasuan kasuko herrialdean unibertsitatara sartzeko baldintzak betetzen badituzte.

1.4.2.– USNa izango da UHUNek emandako ziurtagirian agertzen dena.

1.4.3.– GONa kalkulatzeko kontuan hartuko da edozein unibertsitatetan egindako USPko onarpen fasea eta/edo UHUNeko gaitasun espezifikoaren probetako (GEP) kalifikazioa.

1.4.4.– Onarpen nota hobetzeko, ikasleak berriz aurkeztu ahal izango dira aztergai diren gaietako edozeinetara edozein unibertsitatetan, edo UHUNeko gaitasun espezifikoaren probetara (GEP).

1.5.– Elkarrekikotasun hitzarmenik gabeko herrialdeetan egindako ikasketak dauzkatenak.

1.5.1.– Gobernuak arautu artean atzerriko ikasketak dauzkaten ikasleek unibertsitatara sartzeko egin beharreko proba, ikasle horiek unibertsitate honetan edo beste edozeinetan egin ahal izango dute USPa, Batxilergo titulua behin homologatuta. Homologazio agirian agertzen den Batxilergoko modalitatara aurkeztu beharko dira. Agirian ez bada agertzen Batxilergoko modalitaterik, nahi duten modalitatean egin ahal izango dute USPa.

Bestela, USParen ordeaz, GEP azterketak (gaitasun espezifikoetako probak) egin ditzakete Urrutiko Hezkuntzarako Unibertsitate Nazionalean (UHUN), baliokideak baitira.

1.5.2.– GEPen edukia.

Nahi dutenak gaitasun espezifikoaren probetara aurkeztu ahal izango dira (gehienez ere sei gairen azterketetara), sarrera nota bat lortzeko eta, gura izanez gero, onarpen nota hobetzeko.

UPV/EHUK honako formula hau erabiliko du SARRERA NOTA kalkulatzeko:

$$\text{Sarrera nota} = (\text{BBN} \times 0,2 + 4) + 0,1 \times \text{GEP1} + 0,1 \times \text{GEP2} + 0,1 \times \text{GEP3} + 0,1 \times \text{GEP4}$$

Proba gainditutzat jotzeko, ikasleak gutxienez bi azterketa gainditu beharko ditu (hau da, gutxienez 5,0 atera bi gaitan), eta GEP gehiagotara aurkeztu bada, lau kalifikaziorik onenak hartuko zaizkio kontuan.

Izanez:

BBN = Batxilergoko batez besteko nota.

GEP = UHUNeko gaitasun espezifikoaren proba.

1.6.– Unibertsitate ikasketak dauzkatenak.

Honako hauek zuzenean sartu ahal izango dira unibertsitateko gradu ofizialetara:

a) Unibertsitateko gradu edo master titulu ofizial bat edo baliokide bat daukatenak.

b) Unibertsitateko diplomatu, arkitekto tekniko, ingeniari tekniko, lizentziatu, arkitekto edo ingeniari titulu ofiziala edo haien baliokidea daukatenak, unibertsitateko ikasketen lehengo antolaketa-antolaketa arabera.

c) Espainiako unibertsitate batean ikasketen zati bat eginda daukatenak, baldin eta betetzen badute UPV/EHUko Gradu Ikasketen Gestiorako Arautegiko 11. artikuluan ezarritakoa.

d) Atzerriko unibertsitate batean ikasketen zati bat egin dutenak edo, atzerrian unibertsitateko ikasketak amaituta izanik, Espainian homologaziorik edo baliokidetzarik lortu ez, eta Espainiako unibertsitate batean ikasketak jarraitu nahi dutenak. Kasu horretan UPV/EHUko Gradu Ikasketen Gestiorako Arautegiko 12. artikuluan ezarritako baldintzak bete beharko dituzte.

1.7.– Beste sarbide batzuk.

III. kapituluari jarraituz, honako hauek sartu ahal izango dira gradu unibertsitate ikasketak ofizialetara:

- a) 25 urtetik gorakoak.
- b) Ikasketak jakin batzuei lotutako lan esperientzia daukaten 40 urtetik gorakoak.
- c) 45 urtetik gorakoak.

II. KAPITULUA

UPV/EHUKO GRADUETAN IKASLEAK ONARTZEKO PROZEDURA OROKORRA

Ikasleak onartzeko prozedura honako hau izango da, III. kapituluari aipatzen diren kolektiboentzat zehaztutakoa eragotzi gabe:

2.1.– Lehentasunak Batxilergoaren arabera.

2.1.1.– UPV/EHU Zientzien eta Teknologiaren modalitateko Batxilergoak lehentasuna izango du Ingeniaritza eta Arkitekturaren jakintza adarreko gradu hauetarako:

- * Arkitektura Teknikoa.
- * Ingurumen Ingeniaritza.
- * Ingeniaritza Biomedikoa.
- * Ingeniaritza Zibila.
- * Energia Berriztagarrien Ingeniaritza.
- * Ingeniaritza Elektrikoa.
- * Industria Elektronikaren eta Automatikaren Ingeniaritza.
- * Automobilgintzaren Ingeniaritza.
- * Industria Antolakuntzaren Ingeniaritza.
- * Telekomunikazio Teknologiaren Ingeniaritza.
- * Industria Teknologiaren Ingeniaritza.

* Kudeaketaren eta Informazio Sistemen Informatikaren Ingeniaritza.

* Ingeniaritza Mekanikoa.

* Industria Kimikaren Ingeniaritza.

* Itsasketa.

* Nautika eta Itsas Garraioa.

2.1.2.– Gainontzeko graduek ez dute lehentasunezko batxilergorik.

2.2.– Lehentasunak goi mailako heziketa zikloen arabera.

Gradu bakoitzerako lehentasuna izango dute gradu horren jakintza adarrarekin lotura duten lanbide arloetako zikloek.

2.3.– Sarrera notaren eta graduatarako onarpen notaren kalkulua.

2.3.1.– Graduatarako sarrera nota honako hau izango da, ikasleen kolektibo bakoitzarentzat:

a) Unibertsitatera sartzeko proba (USP) gainditu duten Batxilergoko ikasleak:

$$USN = (0,4 \times SFK) + (0,6 \times \text{Batxilergoko batez besteko nota})$$

SFK: USPko sarbide faseko kalifikazioa.

b) Honako titulu ofizialen bat daukaten ikasleak: Espainiako hezkuntza sistemako Lanbide Heziketako goi mailako teknikariaren titulua, Diseinu eta Arte Plastikoetako goi mailako teknikariaren titulua, edo goi mailako Kirol teknikariaren titulua, edo titulu horien pareko diren titulu, diploma edo ikasketak, edo titulu horiekin homologatutakoak: zikloko batez besteko nota.

c) Europako Erkidegoko Batxilergoko titulua, diploma edo ikasketak dituzten ikasleak –hala Europar Batasuneko estatuetak hezkuntza sistemetatik datozenak, nola beste estatu batzuetako hezkuntza sistemetatik datozenak, baldin eta estatuok nazioarteko elkarrekikotasun hitzarmenak badituzte, arlo honetan aplikagarriak–, edo Europar Batxilergoa edo Nazioarteko Batxilergoa duten ikasleak: UHUNek emandako ziurtagirian agertzen den nota.

d) Europako Erkidegoko bestelako titulu, diploma edo ikasketak dituztenak –hau da, ez direnak Espainiako Hezkuntza Sistemako Batxilergoko tituluaren, Lanbide Heziketako goi mailako teknikariaren, Diseinu eta Arte Plastikoetako goi mailako teknikariaren edo goi mailako Kirol teknikariaren tituluaren parekoak, baina Europar Batasuneko estatu batean lortuak edo egindakoak direnak edo arlo honetan aplikagarriak diren nazioarteko elkarrekikotasun hitzarmenak dauzkaten beste estatu batzuetan lortuak edo egindakoak–, baldin eta ikasle horiek betetzen badituzte kasuan kasuko estatuko unibertsitateetara sartzeko baldintzak:

e) Europako Erkidegotik kanpoko titulu, diploma edo ikasketak dituztenak (hau da, Europar Batasunekoak ez diren eta Batxilergoko titulua elkarri onartzeko nazioarteko hitzarmenik sinatuta ez duten estatuetak hezkuntza sistemetan eginak), baina Espainiako hezkuntza sistemako Batxilergoko tituluarekin homologatuak: sarrera nota I. kapituluko 5. atalari jarraituz kalkulatu da, eta UHUNeko ziurtagiria kontuan hartuta.

f) Espainiako antzinako sistemetan Batxilergoa egin zuten eta bere garaian unibertsitaterako sarbidea izan zuten ikasleak: kasu bakoitzean unibertsitaterako sarbidea eman zien nota.

2.3.2.– Sarrera notak betiko balio du.

2.3.3.– Gradu baterako onarpen nota

2.3.3.1.– Gradurako onarpen nota formula honen bidez kalkulatu da:

$$GON = USN + C1 \times M1 + C2 \times M2$$

K1 eta K2: haztapen koefizienteak; M1 eta M2: gaitutako irakasgaien kalifikazioak, UPV/EHUK onartutako haztapen parametroei eta onarpen irizpideei jarraituz.

Gaitutako gaiak baino ez dira kontuan hartuko kalkulurako.

2.3.3.2.– Graduari lotutako gaien kalifikazioa lortzeko, honako hauek erabiliko dira:

a) Unibertsitatera sartzeko proba (USP).

b) Atzerriko ikasketak dituzten ikasleen kasuan, jatorrizko herrialdean egindako pareko probak, UHUNen ziurtagiriarekin; edo UHUNen egindako GEPak, baldin eta 5,0 edo hortik gorako kalifikazioa badute.

2.3.3.3.– Gradu bakoitzean bi gai hartuko dira kontuan, gradu hori lotutako gaien artetik notarik onena dutenak, 0,2ko edo 0,1eko haztapenarekin.

2.3.3.4.– Gradu bikoitzetarako onarpen nota kalkulatzeko, kontuan hartuko da gradu hori osatzen duten bi graduetak onarpen notarik handiena. Graduetako batek lehentasunezko batxilergorik badauka, batxilergo hori gradu bikoitzerako ere izango da lehentasunezkoa.

2.3.3.5.– Goiko 2.3.3.1. atalean aipatu diren gaien azterketetako kalifikazioek balioa izango dute probaren osteko ikasturtean eta hurrengo bietan.

2.4.– Plazak esleitzeko era.

Plazak esleituko dira gradurako onarpen notaren (GON) arabera, hurrenkera honetan:

Lehenik:

- USP a gaitutu duten eta gradurako lehentasuna daukan batxilergoa egin duten ikasleak.
- Graduaren jakintza adarrarekin lotura duen lanbide arlo bateko goi mailako heziketa ziklo bat egin duten ikasleak.
- Gradurako lehentasuna daukan Europako batxilergoa edo nazioarteko batxilergoa egin duten ikasleak.
- Gradurako lehentasuna duen batxilergoaren pareko Europako Erkidegoko atzerriko ikasketak dituzten ikasleak, ikasketa horiek kasuko herrialdean unibertsitaterako sarbidea ematen badute.
- Goi mailako heziketa ziklo baten pareko Europako Erkidegoko atzerriko ikasketak dituzten ikasleak, ikasketok graduaren jakintza adarrarekin lotura duen lanbide arlo batekoak badira, eta kasuan kasuko herrialdean unibertsitaterako sarbidea ematen badute.
- Europako Erkidegotik kanpoko atzerriko ikasketak dituzten eta Batxilergoa homologatua daukaten ikasleak, ikasketok gradurako lehentasuna daukan batxilergoaren parekoak badira, eta ikasleok unibertsitatera sartzeko proba gaituta badute. Proba UHUNen eginez gero, 1.5 puntuan esandakoa aplikatu da berori gaitutatzat jotzeko, eta beharrezkoa izango da gaitutako gaietako bat Batxilergoko modalitateari dagokiona izatea.

– Espainiako antzinako hezkuntza sistemetan Batxilergoa egin zuten eta bere garaian unibertsitaterako sarbidea zuten ikasleak, batxilergo hori gradurako lehentasuna daukan batxilergoaren parekoa bada.

Bigarrenik:

Aurreko egoeraren batean egonik, gradurako lehentasunik ez daukaten ikasketak dituzten ikasleak.

Hirugarrenik:

Aurreko ataletan zehaztutako baldintzak indarreko ikasturteko ezohiko deialdian betetzen dituzten ikasleak.

2.5.– Plazen erreserba kupoak edo ehunekoak.

Plazak esleitzean kontuan hartuko dira Gradu Ikasketen Gestiorako Arautegian ezarritako plazen erreserba kupoak edo ehunekoak. Onarpena kupo bat baino gehiagoren bitartez eska dezaketen ikasleek aukera aukera hori baliatu ahal izango dute.

III. KAPITULUA

UPV/EHUKO GRADUETARAKO SARBIDE ETA ONARPEN PROZEDURA ESPEZIFIKOAK

3.1.– Hurren azalduko diren sarbide eta onarpen prozedura espezifikoak erabiliko dira kupoei dagozkien plazak esleitzeko, Gradu Ikasketen Gestiorako Arautegiaren arabera. Hauexek dira kupoak:

a) Unibertsitateko titulazioa daukaten ikasleentzat: plazen % 2.

b) % 33ko desgaitasun maila edo handiagoa duten ikasleentzat eta, desgaitasunarekin lotutako hezkuntza premia berezi iraunkorrak izanik, aurreko ikasketak normaltasun osoaz egiteko baliabide eta laguntzak behar izan dituzten ikasleentzat: plazen % 5.

c) Goi mailako edo errendimendu handiko kirolarientzat: plazen % 3 (% 5 gehiago Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientzietako Gradurako eta Fisioterapiako Gradurako).

d) 25 urtetik gorakoentzat: plazen % 2.

e) 45 urtetik gorakoentzat: plazen % 1.

f) Lan esperientzia egiaztatua duten 40 urtetik gorakoentzat: plazen % 1.

3.2.– Unibertsitateko titulazioa daukatenak.

3.2.1.– Espainiako unibertsitate bateko titulua dutenak (unibertsitateko lehen eta bigarren ziklokoa, gradukoa edo masterrekoa): onarpen nota tituluko batez besteko nota izango da, irailaren 5eko 1125/2003 EDren arabera kalkulaturik.

3.2.2.– Atzerriko titulua daukatenek titularen homologazio egiaztatzea aurkeztu beharko dute.

3.3.– 25 urtetik gorakoak.

3.3.1.– Unibertsitaterako sarbidea ematen duen titulazio akademikorik ez izan arren, 25 urtetik gorakoak sarrera proba baten bidez sartu ahal izango dira unibertsitateko gradu ofizialetara. Proba egin ahal izateko, ezinbestekoa izango da proba egingo den urte naturalean 25 urte beteta izatea edo urte horretan betetzea.

3.3.2.— Onarpen nota proban lortutako nota izango da.

Aurrena, lehentasuna izango dute proba egin duten unibertsitatean sartzeko; bigarrenik, proba fase espezifikoan hautatu duten aukerari lotutako jakintza adarrean sartzeko.

3.3.3.— 25 urtetik gorakoentzako sarrera proba.

3.3.3.1.— Unibertsitatera sartzeko probak bi fase izango ditu.

a) Fase orokorra: hiru azterketa izango ditu:

– Testu iruzkin bat edo idazlan bat egitea aktualitateko gai batez.

– Gaztelaniako azterketa.

– Atzerriko hizkuntzako azterketa: alemana, frantsesa, ingelesa, italiera edo portugesa, aukeran.

Baliteke nahitaezko laugarren azterketa bat egin behar izatea, euskarakoa.

b) Fase espezifikoa: bost aukera izango ditu: A (arteak eta giza zientziak); B (zientziak); C (osasu zientziak); D (gizarte eta lege zientziak) eta E (ingeniaritza eta arkitektura).

Azterketak EAEko edozein hizkuntza ofizialetan egin ahal izango dira. Edozelan ere, gaztelaniako, euskarako eta atzerriko hizkuntzako ariketak bakoitza dagokion hizkuntzan egin beharko dira.

Sarrera probarako izena ematean, interesdunak adierazi beharko du atzerriko zein hizkuntza aukeratu duen fase orokorreko azterketarako, eta zein(tzuk) aukera hartu dituen fase espezifikorako.

3.3.3.2.— Urtean deialdi bat egingo da hogeita bost urtetik gorakoen sarrera probarako.

Proban lortutako kalifikazioa hobetu gura dutenak berriro aurkeztu beharko dira hurrengo deialdietan. Deialdi berrian lortutako kalifikazioa hartuko da kontuan, betiere aurrekoa baino hobea bada.

3.3.3.3.— Sarrera probako kalifikazioa.

Unibertsitateak kalifikatuko du sarrera proba eta haren barruko azterketa bakoitza, hezkuntza administrazioak ezarritako balorazio irizpide eta formulen arabera.

Azken kalifikazioa fase orokorrean eta espezifikoan lortutako kalifikazioen batezbesteko aritmetikoa izango da: 0tik 10era bitarteko kalifikazioa izango da, hiru dezimalekin adierazia eta milarenik hurbilenekora borobildua, eta laugarren dezimala bost denean, milarenik handienera.

Unibertsitatean sartzeko proba osoa gainditzeko, gutxienez bost bat lortu beharko da azken kalifikazioan, eta batezbestekoa egiteko, beharrezkoa izango da fase bakoitzean (orokorrean eta espezifikoan) gutxienez lau bat ateratzea.

3.3.3.4.— Kalifikazioa erreklamatzeko.

Behin-behineko kalifikazioak argitaratuta, interesdunak hiru egun baliodun izango ditu epaimahaiari erreklamazioa jartzeko.

Epaimahaiak emandako behin betiko kalifikazioarekin ados egon ez badago, gorako errekurtsioa aurkeztu ahal izango dio graduen eskumena daukan errektoreordeari.

3.4.— 45 urtetik gorakoak.

3.4.1.— Unibertsitaterako sarbidea ematen duen titulazio akademikorik ez izan arren, 45 urtetik gorakoak sarrera proba egokitu baten bidez sartu ahal izango dira unibertsitateko gradu ofizialetara, proba egiten den urte naturalean adin hori badaukate edo urte horretan betetzen badute.

3.4.2.– Onarpen nota proban lortutako nota izango da.

Hautagaiek unibertsitate honetan gainditu beharko dute proba.

3.4.3.– 45 urtetik gorakoentzako sarrera proba:

3.4.3.1.– Honako arlo hauei buruzko bi azterketa izango ditu:

- a) Testu iruzkin bat edo idazlan bat egitea aktualitateko gai batez.
- b) Gaztelaniako azterketa.

Baliteke nahitaezko hirugarren azterketa bat egin behar izatea, euskarakoa.

Sarrerako probaz gain, hautagaiek elkarrizketa bat egin beharko dute. Sarrera proba gainditzeko, elkarrizketaren ostean gai kalifikazioa jaso beharko dute.

Ariketak egiteko, hautagaiek azterketa egiten den ikastetxea dagoen autonomia-erkidegoko edozein hizkuntza ofizial erabili ahal izango dute, nahi izanez gero. Edozelan ere, gaztelaniako eta euskarako azterketak bakoitza dagokion hizkuntzan egin beharko dira.

3.4.3.2.– Urtean deialdi bat egingo da berrogeita bost urtetik gorakoentzako sarrera probarako.

Sarrera proba ikasketa jakin batzuetarako egingo da.

Hautagaiek unibertsitate honetan gainditu beharko dute proba.

Proban lortutako kalifikazioa hobetu gura dutenak berriro aurkeztu beharko dira hurrengo deialdietan. Deialdi berrian lortutako kalifikazioa hartuko da kontuan, betiere aurrekoa baino hobea bada.

3.4.3.3.– Sarrera probako kalifikazioa.

Unibertsitate bakoitzak kalifikatuko du 45 urtetik gorakoentzako sarrera proba eta haren barruko azterketa bakoitza, hezkuntza administrazioak ezarritako balorazio irizpide eta formulen arabera. Azken kalifikazioa azterketetan lortutako kalifikazioen batezbesteko aritmetikoa izango da: 0tik 10era bitarteko kalifikazioa izango da, hiru dezimalekin adierazia eta milarenik hurbilenekora borobildua, eta laugarren dezimala 5 denean, milarenik handienera.

Unibertsitatean sartzeko proba osoa gainditzeko, gai kalifikazioa lortu behar da elkarrizketan, eta gutxienez bost bat azken kalifikazioan. Batezbestekoa egiteko, beharrezkoa izango da azterketa bakoitzean gutxienez lau bat ateratzea.

3.4.3.4.– Kalifikazioa erreklamatzeari.

Behin-behineko kalifikazioak argitaratuta, interesdunak hiru egun baliodun izango ditu epaimahaiari erreklamazioa jartzeko.

Epaimahaiak emandako behin betiko kalifikazioarekin ados ez badago, gorako errekurtsioa aurkeztu ahal izango dio graduen eskumena daukan errektoreordeari.

3.5.– Lan esperientzia daukaten 40 urtetik gorakoak.

3.5.1.– Unibertsitaterako sarbidea ematen duen titulazio akademikorik izan ez arren, 40 urtetik gorakoak unibertsitatera sartu ahal izango dira bide honetatik, ikasketa jakin batzuekin lotutako lan esperientzia badaukate, eta ikasturtea hasiko den urte naturalean adin hori badaukate edo urte horretan betetzen badute.

Probak ikasketa jakin batzuetarako sarbidea emango du, gradu horren ardura daukan ikastegiak aukera hori eskaintzen badu eta graduaren memorian hala jasota badago.

3.5.2.– Graduaren ardura daukan ikastegiak batzorde bat eratuko du bide horretatik sartzeko aurkeztutako eskariak ebaluatzeko. Ikastegiko Akademia Antolakuntzako Batzordea izan ahalko da, edo horretarako sortutako beste bat.

Batzorde horrek zehaztuko du zein esperientzia mota eskatuko den, nola egiaztatuko den eta zein irizpide objektibo erabiliko den eskariak ebaluatu eta ordenatzeko. Edozelan ere, interesdu-nak elkarrizketa egin beharko du, gerora ere errepikatu ahal izango delarik.

Lan esperientziaren balorazioak betirako balioa izango du unibertsitateko ikasketa jakin horietarako.

Irizpideak gutxienez urtebete lehenago onartu eta argitaratuko dira ikastegiaren web orrian.

3.5.3.– Eskariak jasota, batzordeak hautagaien curriculumak, lan bizitza eta elkarrizketa baloratuko ditu, 0tik 10era bitarteko puntuazioarekin. Hautagaiari behin-behineko balorazioa jakinaraziko zaio eta berak hiru egun baliodun izango ditu batzordeari kalifikazioaren berrikuspena eskatzeko.

3.5.4.– Batzordearen balorazioa aintzat hartuta, ikastegiko zuzendari edo dekanok behin betiko balorazioa egingo du eta eskaria ebatziko du. Behin betiko balorazioa gradurako onarpen nota izango da.

Ikastegiaren erabakiaren kontra gorako errekurtsioa jarri ahal izango zaio graduaren eskumena duen errektoreordeari.

3.6.– Goi mailako eta errendimendu handiko kirolariak.

3.6.1.– Goi mailako edo errendimendu handiko kirolariak beren kupoaren bidez sartu ahal izango dira unibertsitatean, eta erabiltzen duten sarbidearen arabera onarpen nota izango dute.

3.6.2.– Ohiko deialdian talde honentzat gordetako plazaren bat bete gabe geratuz gero, ezohiko deialdirako gordeko da.

3.6.3.– Kolektibo honentzat gordetako plazen kupoaren barruan, goi mailako eta errendimendu handiko kirolariei buruzko dekretuan zehaztutako lehentasuna aplikatuko da (971/2007 Errege Dekretua, uztailaren 13koa).

– Goi mailako kirolariek lehentasuna izango dute errendimendu handiko kirolarien aurretik, uztailaren 13ko 971/2007 Errege Dekretuko 2.2 artikuluen arabera.

– Errendimendu handiko kirolarien lehentasunak izango dira uztailaren 13ko 971/2007 Errege Dekretuko 2.3 artikuluan ezarritakoak.

3.7.– % 33ko desgaitasuna edo handiagoa aitortua duten pertsonen kupoa.

3.7.1.– % 33ko desgaitasuna edo handiagoa aitortua duten ikasleak eta, desgaitasunarekin lotutako hezkuntza premia berezi iraunkorrak izanik, aurretik erabateko normaltasunarekin eskolatze laguntza eta baliabideak behar izan dituzten ikasleak dagokien kupoaren bidez sartu ahal izango dira, eta erabiltzen duten sarbidearen arabera onarpen nota izango dute.

3.7.2.– Ohiko deialdian talde honentzat gordetako plazaren bat bete gabe geratuz gero, ezohiko deialdirako gordeko da.

IV. KAPITULUA

UNIBERTSITATERA SARTZEKO PROBAREN (USP) NONDIK NORAKOAK

4.1.– Probara aurkezten diren ikasleek prozedura hau bete behako dute, eta onartu beharko dituzte USPren Antolaketa Batzordeak probaren inguruan hartzen dituen erabakiak, proban zehar gerta daitezkeen gorabeherak eta haien ondorioak.

Horren helburua da proba berdintasun, merezimendu eta gaitasun printzipioen arabera egitea.

4.2.– Proben nondik norakoak.

4.2.1.– USParen Antolaketa Batzordeak azterketen ordutegiak ezarriko ditu, eta azterketa bakoitza bere orduan hasiko da.

Epaimahai bakoitzak ordutegiak zorrotz betetzen direla zainduko du.

Epaimahai batek baino gehiagok egoitza bera dutenean, ordutegiak koordinatuko dira.

4.2.2.– USPa egin behar duten ikasleak baino ezin izango dira egoitzetan sartu. Matrikularen gordekina eta NANA, pasaporte edo beste identifikazio dokumentu ofizial baliodunen bat eraman beharko dituzte.

USPan matrikulatuta ez daudenei ez zaie sartzen utziko. Laguntzaileei ez zaie sartzen utziko, behar bezala baimendutakoei izan ezik.

Azterketak behin banatutakoan ez zaio inori gelan sartzen utziko.

4.2.3.– Gelan, ezin izango da erabili ez mugikorrik, ez entzungailurik ez komunikazio gailurik ez bestelako gailu elektronikorik (kalkulagailuak izan ezik, baimenduta daudenean). Halako gailu guztiak gordeta egon beharko dira norberaren gauzekin batera, eta ez inolaz ere mahaiaren gainean. Zalantzarik izanez gero, epaimahaiari galdetu beharko zaio.

4.2.4.– Probaren iraupena.

Behin azterketak banatuta, ikasleek 90 minutu izango dituzte egiteko, eta ezin izango dira gelatik irten denbora horren erdia igaro arte.

4.3.– Gorabeherak.

Proban zehar gorabeherarik gertatzen bada, epaimahaiak ebatziko ditu, eskumena izango baitu egoki deritzen neurriak hartzeko, gertatutakoaren argitan eta Antolaketa Batzordeak horretarako emandako jarraibideak betez.

Epaimahaiak idatzita utziko ditu proban zehar gertatutako gorabeherak.

4.4.– Ondorioak.

Ikasleek iruzurrik eginez gero, men egin beharko diote Probaren Antolaketa Batzordeak horren inguruan erabakitzen duenari.